Aide bakoitzak aginduten dau
edo garia edo artoa,
eskon-barriak bizi aidtezan
beti dabela Paskoa,
ogia iaten edo berorik
sutan erreko taloa.

Urrengo eguna da Domekea
goizetik eta gaubera
eta egun atan ekarten dira
eskondu danen echera
idi-burdiak eta arreoa
estegukoen aurrera.

Orduan dira barri barritan
atsagon bako traguak,
gazteen zirri, atsoen mirri,
ta agura zarren kantuak,
ta eskon-barrien pozgarrirako
kantu ta dantza-soinuak.

Illun-antzean guztiak doaz
bakoitza bere lekura
gabon-arte beti zarra zarra
ardao-orde edaten ura:
ta eskon-barriak elduten dira
eurak nai eben zerura.

E. M. AZKUE.

# MAITENENA

(CANCIÓN POPULAR SULETINA)

Zeruko izarren bidia
Nik baneki,
An nir'ene maite gaztia
Chuchen kausi;
Bena gaour jagoiti nik oura
Ez ikousi.

Zuain gazte bat nik aiotzaz
Trenkaturik,
Uduri zait ene biotza
Kolpaturik,
Errouak eroriko zeitzola
Eiarturik.

Zereri beitzen lili ororen
Eijerrena,
Bai eta ene biotzeko
Maitenena,
Aren izanen da ene azken
Asperena.